EUSKARAREN BERRIPAPERA

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Araban bikoiztu egin da euskaldunen kopurua hamar urtetan

Araban bikoiztu baino gehiago egin da euskaldunen kopurua 1981etik 1991 bitartean EUSTATek, Euskal Estatistika Erakundeak, eta Eusko Jaurlaritzako HPINek jasotako datuen arabera. Urte horietan euskaldunak 9.693 izatetik 22.995 izatera pasa dira, hau da, biztanleria guztiaren % 8,6. Beste 53.581 arabar (%20) ia-euskaldunak dira, hau da, euskaraz nekez ulertzen edo eta hitz egiten dute.

Hiriko euskaldunak

Nahiz eta Araban badagoen Euskal Herri osoko euskaldun portzentaia handienetakoa duen]anda inguruneko herririk, Aramaion euskaldunak %85,9 dira, euskaldun gehienak hiri ingurunetan bizi dira. Hiru euskaldunetatik bi Gasteizen bizi dira.

Adinaren arabera

Adin talde gazteenetan egiten du gora batez ere arabar euskaldunen kopuruak eta bereziki 45 urtetik beherakoetan.

Dena den, adin talde txikienetan gertatu da hazkunderik nabarmenena. 1981ean %5 baino gutxiago ziren euskaraz hitz egiten zuten 5 eta 14 urte bitarteko arabarrak; 1991n, berriz, %19,5.

Ia-euskaldunei dagokienez, 1981ean ez ziren %20ra iristen eta 1991n, berriz, %45 baino gehiago ziren. Beraz, lau aldiz gehitu dira 5 eta 14 urte arteko euskaldunak.

Hazkundearen arrazoiak

Hazkunde ikusgarri hori arabarrek nahi izan dutelako gertatu da:

- Arabarren %75ek dio ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea.
- Era berean, %60k dio 50 urte barru Euskal Herrian denok jakin beharko genukeela euskaraz.

Dena den, hezkuntza elebiduna aukeratzea da arabarrek euskararen inguruan duten nahia ondoen adierazten duena, 1982-83 ikasturtean eskolaurreko ikasleen %25 B eta D ereduetan matrikulatu zen. 1994-95ean, berriz, %64.

Bilakaerak bere horretan segituz gero, eskolaurreko ikasleen %90ek B eta D ereduetan egingo ditu ikasketak hamar urte barru.

Esparru berriak

Euskara Araban luzaroan galtzen aritu ondoren, azken urteetan berreskuratzen hasi da. Pixkanaka-pixkanaka, errotulazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan sartzen ari da. Bidea luzea izango da, baina Arabak elebitasunaren aukera egin du.

Euskaldunen bilakaera Araban

Adin taldeka



Iturria: EUSTAT

© Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Patxi Zurikarai, erresistentziaren lekuko

Patxi Zurikarai, 79, Durangon jaio zen. Gasteizko apaizgaitegian Joxe Migel Barandiaran eta Manuel Lekuona izan zituen irakasle. Abade ikasketak lagata, lau urtez munduko itsasoetan barna jardun zuen lanean. Berriro etxean, hainbat antzerki lanetan (Pedro Mari, Hiru gudari ...) parte hartu zuen.

Gerra Zibila hasi zenean 21 urte zituen. Ibaizabal eta Kirikiño batailoietan aritu zen, azken honetan sarjentu. Preso hartuta, heriotz zigorra ezarri zioten. la bi urtez zigor berdina zuten lagun asko ikusi zituen heriotzera joaten, inoiz jakin barik noiz izango zen bere txanda. Presondegian hainbat antzerki lan antzeztu eta ehun eta piku ahotsez osatutako abesbatza eratu zuten. Behin Burgosko katedralera eraman zituzten abestera.



Patxi Zurikarai

Sei urte egin eta gero, kalera irten zen aske, baina beste bederatzi hilabeterako eraman zuten espetxera, euskal erresistentziaren aldeko ahaleginetan zebilela harrapatu ondoren. "Urte haietan erresistentzian nenbilen burubelarri eta, badakizu, harrapatu egin ninduten", azaldu du irribarretsu.

Demokrazia iritsi zenean erantzunkizun publikoak iritsi zitzaizkion: Durangoko alkate lau urtez, Bizkaiko Batzarretako kide eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatua izan zen.

Gaur egun Durangoko Musika Eskolako zuzendaritzako kide da.

Fishman-en lanak Stanford-era

Californian dagoen Stanford Unibertsitateko liburutegiak Joshua A. Fishman ikerlari ospetsuaren agiritegia jaso du. Goi ikerlariek aztertu eta erabili ahal izango dute.

Fishman doktorea Hizkuntzaren Soziologian aitzindarietakoa, munduan zehar barreiaturik dauden hizkuntza txikien defendatzaile sutsua da. Agiritegi honek Joshua Fismanek eta Gellak, haren emazteak, berrogeita hamar urtetan bildutako agiriak, argitaratutako eta argitara eman gabeko lanak, gutunak eta emandako hitzaldien grabazioak jasotzen ditu.

Euskararen egoera soziolinguistikoaren ezagutzaile ona den hau, Eusko Jaurlaritzak gonbidaturik, Euskal Herrian hainbat aldiz izan da azterketa lanak egin eta hitzaldiak ematen.

Bi milioi pta UEMArentzat Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak bi milioi pta emango dizkio Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari, UEMAk biltzen dituen 21 udalerrietan ageriko errotuluak euskaldundu, hizkuntzarekiko jarrerak hobetu eta merkataritzan euskararen presentzia hobetzeko.

Foru araua euskararentzat. Gipuzkoako Batzar Nagusiak bere baitako euskararen erabilera arautuko duen foru araua lantzen ari dira. Dagoeneko bada berariaz sortutako batzordeak ontzat emandako proposamena. Hizkuntza kontuetarako finkatutako legedia abiapuntutzat hartuta, Gipuzkoako Batzar Nagusien funtzionamenduan euskararen erabilera normaldu nahi da.

654 milioi pta euskaltegi homologatuei. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu batzordeak 654 milioi pezetazko partida onartu du Euskal Autonomi Elkarteko euskaltegi pribatu hornologatuei emateko. HABEk banatuko ditu diru hauek. Dirulaguntza honekin euskaltegiok aurre egin ahal izango diete ikasturte honetan zehar ikasleen euskalduntzeak eta alfabetatzeak sortarazitako gastuei.

Euskal liburuak FEVArentzat. Haur, gazte eta helduei zuzenduriko 250 izenburuko liburu-sorta bidali berri dio Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Argentinako Euskal Etxeen Federazioari (FEVA). Buenos Aires-en dagoen federazio hau, beste zenbait eginkizunen artean, Argentinan euskara irakatsi edo/eta ikasten dutenen arteko bateratze lanaz arduratzen da.

ATZERA © Hizkuntza Politikarako Sailordetza AURRERA

Euskarak Araban bizi duen egoerari buruzko zenbait herri

Hona hemen Arabako euskararen egoera hobeto-ezagutzeko aipagarriak diren hainbat datu:

• *Arabar erdaldun gehienek (%89) ez dute bereizkeriarik sentitzen euskara ez jakitearren.*

Hori agertzen da Eusko Jaurlaritzaren HPINek eta Lehendakaritza Sailaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 1991n eta 1992an egindako azterketetan.

• *Hamar arabarretik zazpik uste du euskarak Araban jasotzen duen trataera nahikoa, eskasa edo behekoena dela.* Ondorio hau *El Mundo del Pais Vasco* egunkariak eskaturik Invesco enpresak irail honetan egindako inkestatik atera zen, urriaren 20an argitaratu zena.

• *Azken lau urteotan Arabako Foru Aldundiak eta Arabako udalek deialdi publikora ateratako 1.118 lanpostuetatik 29 baino ez dira elebidunak.* Han da, lanpostu guztien %2,59n euskara beharrezko baldintza izan da lanpostua lortu ahal izateko. 29 lanpostu horietatik 4 euskara itzultzaileei zegozkien.

• *Administrazio publikoen hizkuntza plangintza lurralde bakoitzak duen egoera soziolinguistikora egokitzen da.* Horrela, egungo plangintzaren epea amaitu aurretik Araban elebidun izan behar duten funtzionarioen kopurua % 15,19koa da (430 funtziona-rio guzura). Gipuzkoan %52,25 (3.331 funtzionario guztira) eta Bizkaian %16,50 (2.620 funtzionario guztira).

• *Arabako irakasleen artean euskara jakiteko eskakizuna hezkuntza elebidunean ari diren guraso arabarren eskariari dago lotuta.* 1993-94an hizkuntza eskakizunak egiaztaturik zituzten 3 eta 14 urte arteko haurren artean irakasten zuten Arabako sare publikoko irakasle elebidunen portzentaia %50ekoa da. Ikasle elebidunen portzentaia %51koa da.

Antonina Iribar, musikologo getariarrak euskal bertsolaritzari buruz egin du karrera-bukaerako tesia Alemaniako Univeersitt zu KLN-en. Alemaniara flauta ikastera joan zen eta bi karrera egin ditu: Flauta travesera delakoa eta Musikologia.

Concepeion Monreal, irakasle texastarra eta Los Angelesko UCLA Unibertsitateko irakaslea, Euskal Herrian izan da hemengo irakas sistema elebiduna aztertzen. Santiago de Compostelako Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientziak Fakultateak gonbidaturik dago hemen.

Elena Bizkaitarra, 35, kazetari gasteiztarra, Gasteizko SER irratiko zuzendaria da. Madrilgo Complutense Unibertsitatean ikasi ondoren, Radio Euskadin eta SER irratiarekin Bilbon, Cádizen, Madrilen eta Miranda de Ebron egin du lan.

Argitalpenak

Antzoki iluna

HABEk bost liburuxkaz eta beste hainbat kasetez osatutako Toribio Altzagaren hiru antzerki-lan argitaratu ditu Antzoki Iluna bildumaren barruan. Antzoki Iluna bilduma alfabetatzearen eta euskalduntzearen azken urratsetan erabiltzen da.

EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

❑ Euskaraz ❑ Gazteleraz

Izen-deiturak: .....
.....
Helbidea:.....
.....
Herria: .....
Kodea: .....
Lurraldea: .....
Tel.: .....

© Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Galdezka

Hizkuntza adostasuna

G. Apurtu egin al da hizkuntza politikaren inguruko adostasuna Eusko Legebiltzarrerako urriko hauteskundeen ostean?

E. Benetan uste dut hauteskundeen emaitzetatik ondorio hori ateratzea huts nabarmena dela. Gehiago oraindik, era horretako balorazioek ez diote Euskal Herriaren trinkotze eta integrazioari laguntzen. Era berean neurriz kanpokoa iruditzen zait botu abertzalearen igoera hizkuntza politikaren areagotzearekin parekatzea bai botu ez abertzalearen gorakada aipatutako politika moteltzearekin uztartzea. Horrelako mezuak bultzatzea atzerapausoa da euskal gizarte bakarraren alde lan egin eta euskal komunitate bakar eta anitza bilatzen dugunontzat, hizkuntzari zein kulturari dagokienez, komunitate horretan euskararen defentsa gizarte osoaren eskuetan izatea nahi dugunontzat eta ez abertzaleen ondare soil soilik.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Hezkuntza hirueleduna eztabaidan

Azaroaren 3an eta 4an Hezkuntza Eleaniztunari buruzko II. Nazioarteko Jardunaldiak egin ziren Gasteizen, Gaztelueta Fundazioak antolaturik eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta HPINen laguntzarekin. Gai nagusia hezkuntza hirueleduna izanik, bi egunetan zehar Kanadan, Europan, Euskal Herrian eta Katalunian egiten ari diren zenbait esperientzia aztertu ziren.

Hauek izan ziren. biltzarkideek atera zituzten ondorioak:

- Hezkuntza hirueleduna posible da, nahiz eta gauzatzeak hausnarketa, heziketa eta antolaketa lan handia eskatzen duen.
- Oraingoz gutxi aztertu eta ebaluatu denez, ikerketa-lan gehiago egin beharra dago hezkuntza hirueledunaren inguruan.
- Komunitate etnolinguistiko bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta beste herrietan sortutako ereduak ezin dira dauden daudenetan inportatu. Inoren esperientziatik ikasi bai, baina geureak sortu behar ditugu.
- Euskal Herrian hainbat esperientzia egiten ari dira hezkuntza hirueledunari dagokionez. Biltzarkideek Gaztelueta ikastetxean, Hizkuntzen Pedagogiarako Institutuak eta Ikastolen Federakuntzaren artean eta Irungo Txingudi ikastolan egiten ari direnak ezagutzeko parada izan zuten. Hirurak ere zorrotz ebaluatuak, kontutan hartu behar izango dira aurrerantzean.
- Asko da eremu honetan egiteke dagoena, batez ere hezkuntza elebidunak Euskal Herrian duen aniztasuna eta aberastasuna kontutan hartuz gero.

✔ Kontutan hartzeko

- **Gerriko VI. Ikerlan-Sariketa.**

Gaia Goierriri dagokion edozein zientzi alorretakoa izan liteke. Idazlanak euskaraz bidali behar dira. Lanak jasotzeko epea 1995eko martxoaren 31n itxiko da. Sariak: lehena 375.000ptakoa; bigarrena 275.000koa eta hirugarrena 175.000ptakoa izango dira. Lanak Goiherriko Euskal Eskolara bidali behar dira.

- **Richard Y. Bourhisen hitzaldia.**

Abenduaren 20an Quebeceko Unibertsitateko ira.kaslea den Richard Y. Bourhis-ek hitzaldia emango du Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzean, EHUren Hizkuntza Plangintzarako Diplomaren barruan. Gaia: Etnolinguistikazko Bizitasuna: abiapuntua, garapena eta aplikazio esparruak.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA — SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA — SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA

ATZERA
© Hizkuntza Politikarako Sailordetza